



ALKATE DEKRETUA

Nik, Izaro Elorza Arregui Oñatiko Alkatea naizenez eta Toki Korporazioetako Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridiko Erregelamenduak ematen dizkidan ahalmenetan oinarrituz ondorengo agintzea erabaki dut:

Artikulu hauetan xedatutakoa betetzeko: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22. eta 46. artikulua; Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea; eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 79., 80 eta 82. artikulua.

2021eko abenduaren 16an onartutako saioen egutegia ikusita.

Alkate-udalburua naizenez, bai eta toki-araubidea arautzen duen indarreko araudiak ematen dizkidan ahalmenak ikusita,

Erabaki dut:

Udalbatzaren ohiko bilkurarako deia egitea. Bilkura hori udal honetako Osoko Bilkuren Aretoan egin beharko da, 2022ko ekainaren 30ean, 18:30etan, lehen deialdian, eta bi egun geroago eta ordu berean, bigarrenetan. **Gai-zerrendako gai hauek aztertuko dira:**

1. Onartzea, hala badagokio, 2022-05-26ko ohiko osoko bilkuraren akta, (5.2022).
2. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Udal interes edo erabilera berezikotzat hartzea zerrendatzen diren eskatzaileen obrak, Ogasun Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko ekainaren 7an.
3. Onartzea, hala badagokio, Alkateak egindako proposamena: Oñati Udaleko 2021eko kontu orokorra onartzea, Kontuen batzorde berezian diktaminatua 2022ko maiatzaren 10ean.
4. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Gipuzkoako Foru Aldundiaren Elkar Ekin Lanean deialdian "Alkarrekin Eratu" elkarlan proiektua aurkezteko Debagoieneko Mankomunitatearekin lankidetza hitzarmena sinatzea onartzea, Sozioekonomia Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko ekainaren 8an.
5. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Albarditzaga baserrietarako (Garagaltza auzoko 35, 36 eta 49 zkiak., 9575 kodigoa) bidearen azterketa eta 9575 kodigoa duen auzobidea bide publikoen zerrendan gehitzea, Zerbitzuak eta Landa Garapen Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko ekainaren 21ean.
6. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Taberna aurrealdeko mahai eta aulkiak jartzeko" Udal Ordenantzan terraza jartzeko irizpide berriak onartzea, Zerbitzuak Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko maiatzaren 24an.
7. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Udalaren HOMetan larreratzek eta artzain txabolen erabilera arautzeko udal ordenantzari hasierako onarpena ematea, Ingurumen Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko ekainaren 21ean.
8. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Oñatiko ikastetxeen eskolako 2030 programa garatzeko, koordinatzeko eta laguntza teknikoa

emateko zerbitzuaren konpromiso-kreditua onartzea, 4 urtekoa, Ogasun Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko ekainaren 21ean.

9. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Behin betiko onartzea Antolaketarako Arauen aldaketa puntuala, Lurzoru Urbanizaezineko Babes bereziko nekazaritza eta abelazkuntzarako Zonetan erauzketa erabilerari buruzkoa, Hirigintza Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko ekainaren 22an.
10. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Errekalde auzoan transformazio-zentro berri bat jartzeko Oñargi S.L enpresaren baimen-eskaera onartzea eta jabari publikoko emakida ematea, Hirigintza Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko ekainaren 22an.
11. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Olakua auzoan armairua jartzeko Merkaño S.L enpresaren eskaera onartzea eta jabari publikoko emakida ematea, Hirigintza Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko ekainaren 22an.
12. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Oñatiko Udalaren eta Irazan Antzerki elkartearen arteko hitzarmena onartzea, emakume sortzaileen lanari ikusgarritasuna emateko asmoz, kultura Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko ekainaren 20an.
13. Hala badagokio, presako gaiak.
14. EH Bildu taldearen adierazpena: Bi ikur, herri bakarrari buruzkoa.
15. EH Bildu taldearen adierazpena: nazioarteko babesa eskatzen dutenei buruzkoa.
16. Hala badagokio, larrialdi-mozioak.
17. 2022ko maiatzaren 23tik 2022ko ekainaren 24ra bitartean eman diren alkate dekretuen berri ² ematea, 556 zenbakitik 801 zenbakira.
18. 2022ko Toki Gobernuko Batzordeen akten berri ematea (13., 14., 15. eta 16. saioak).
19. Galderak eta eskaerak.

Jakinaraz bekie berehala Udaltzako zinegotzi guztiei, eta ohartarazi Idazkaritzan eskura dutela gai-zerrendan jaso diren aztertu beharreko gaien buruzko dokumentazioa, eta, arrazoi justifikaturen bat dela-eta bilkurara joaterik ez badute, alkate-udalburuari jakinarazi beharko diotela, behar besteko aurrerapenaz.

Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut



Oñatin, 2022eko ekainaren 27an

Alkateak

Izaro Elorza Arregui